

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAÑO, PIPAON ETA URIZAHARREKO LAS RASAS MENDI ERKIDEGOA

#### **Jendaurrean jartzea landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko errolda**

Arabako Foru Aldundiak Urizaharreko udal barrutian dauden eta Laño, Pipaon eta Urizaharreko Las Rasas Mendi Erkidegoarenak diren landa ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2020ko ekitaldiko errolda egin du. Horiek horrela, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dituzte, eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak edo oharrak egin ahal izango dituzte, zerga hori arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Erreklamaziorik egon ezean, behin betiko onartutzat joko da.

Agiriak Urizaharreko Udalaren bulegoetan daude interesa dutenen eskura.

Urizaharra, 2020ko ekainaren 30a

*Lehendakaria*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*